



# BALDINTASUNA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Nekazaritzako Politika Bateratuaren laguntzak eskatu dituzten nekazariak eta abeltzainak bete beharreko baldintzak



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

NEKAZARITZA, ARRANTZA  
ETA ELIKADURA SAILA  
DEPARTAMENTO AGRICULTURA,  
PESCA Y ALIMENTACIÓN

Europako Erkidegoko nekazaritza-politika Europako gizartearen eskakizunak integratzen joan da, eta, une honetan, ingurumena, osasun publikoa, sanitatea eta animalien ongizatea kontuan izandako baldintzatzaile garrantzitsuenak dira. Nekazaritzako Politika Bateratuaren egungo erreformak indartu egin du Agenda 2000n sortu edo zehaztu zen “ekobaldintasuna” kontzeptua, eta beste kontzeptu bat agertu da, **baldintasuna**.

Gaur egun, baldintasunaren barne honakook ulertzen ditugu:

- nekazaritza eta ingurumeneko baldintza egokiak
- legezko kudeaketa-betekizunak

Baldintzatzaile horiek hiru esparrutan aplikatzekoak dira:

- nekazaritza eta ingurumeneko baldintza egokietan,
- ingurumenean,
- eta, osasun publikoan, animalien osasunean eta landareen osasunaren eremuan.

Honako honen bidez euskal nekazari eta abeltzain guztioi jakinarazi nahi dizkiegu euren ustategietan bete behar dituzten nekazaritza eta ingurumeneko baldintza egokiak eta legezko kudeaketa-betekizunak, horiek ez betetzeagatik etor daitezkeen isunak saihesteko.

Argitalpen honek helburu dauka Europako Batasunak zuzeneko laguntzak emateko derrigorrezkotzat jotzen dituen betekizunak Euskadiko baserritar eta abeltzain guztien esku jartzea modu argian eta eginkorrean.

Espero dut, beraz, jarraian ematen den informazioa laguntzak ezagutzeko bide izan dadila ezagutza-ezagatik etor litezkeen ez-betetzak alboratuz.

Aitzitik, oraingoan ere sinistuta nago, Euskadiko lehen sektoreko gizon-emakumeen profesionaltasunari eta eginkortasunari esker; eskakizunak bete egingo direla hainbatean agerian jarri den gaitasuna erakutsiz.

GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO

**Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua**

## Aurkezpena








## **Aurkibidea**

Definizioak .....	5
Kontrol eremuak .....	7
Nekazaritza eta ingurumen alorreko baldintza onen eremua .....	9
Ingurumen eremua .....	13
Osasun publiko, animalia osasun eta landareen osasun eremua .....	17





## “Baldintasuna”, kontzeptua?

Nekazaritzako politik bateratua, azken urteotan, Europako gizartearen eskakizunak integratzen joan da. Horri dagokionez, ingurumena, osasun publikoa, sanitatea eta animalien ongizatea kontuan izandako baldintzatzaile garrantzitsuenak dira. Nekazaritzako Politika Bateratuaren egungo erreformak indartu egin du Agenda 2000n sortu edo zehaztu zen “ekobaldintasuna” kontzeptua, eta beste kontzeptu bat agertu da *baldintasuna*.

Nekazaritzako Politika Bateratuaren egungo erreforma Kontseiluaren 1782/2003 (EE) Araudian dago jasota; horren arabera, xedapen bateratuak ezartzen dira nekazaritzako politika bateratuaren esparruko laguntza zuzenen erregimenei aplikatu ahal zaienak. *Araudi horrek betebeharrak ezartzen die ordainketa zuzenak jasotzen dituzten nekazari eta abeltzainei, hain zuzen ere, baldintzarako bete beharra.*

Zera ulertzen den Baldintzarako esanda:

### — Kudeaketaren alorreko lege betekizunak; Kontseiluaren 1782/2003 (EE) Araudiaren III. Eranskinean daude jasota:

Euren jatorria gaur egun indarrean dauden 18 Araudi eta Zuzentarautan dago, eta Nekazaritzako Politika Bateratuaren ondorioetarako 2005, 2006 eta 2007 urteetan dira aplikagarriak.

Erkidegoaren Zuzentarau eta Araudi hauek *ingurumen* alorrekin daude lotuta (5 Zuzentarau), bai eta *osasun publiko, animalien osasun, landareen osasun eta animalien ongizate alorrekin* (13 Zuzentarau eta Araudi).

### — Nekazaritza eta ingurumen alorreko baldintza onak :

Nekazaritza eta ingurumen alorreko baldintza on hauek Europar Batasuneko kide den Estatu bakoitzak garatuko ditu, 1782/2003 (EE) Araudiaren IV. eranskinean agindutakoa betetzeko.

Hau da, EEk nekazaritza eta ingurumen alorreko baldintza onen gutxienezko betekizunak zehaztera behartzen ditu Europar Batasuneko kide diren Estatuak, 1782/2003 (EE) Araudiaren IV. eranskinean jasotako esparruaren oinarrien arabera.

Espainiar estatuan, nekazaritzaren alorreko eskumen horiek Eusko Jaurlaritzaren esku daude, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuari dagokionez.

## Definizioak



## Baldintasunak 1782/2003 (EE) Araudian

### *Oinarriak*

“[...] (2) Laguntza zuzenak osorik ordaintzeko arau batzuk bete behar dira, lur, ekoizpen eta nekazaritzako jardueri dagokienez [...]”

“[...] (3) Nekazaritzako lurak bertan behera ez uzteko, eta nekazaritzari eta ingurumenari dagokionez lurrok egora onean mantentzeko, arau batzuk ezarriko dira Europar Batasunaren kide diren Estatuetan, lege oinarria izan dezaketenak edo ez [...]”

“[...] (4) Etengabeko larreek eragin positiboa dutenez ingurumenari dagokionez, ego-kia da larreek mantentzeko eta larre arlo guztiak laborantzako lur ez bihurtzeko neurriak hartzea [...]”

### *Titulua, II. Kap. I (3tik 9ra arteko artikulua)*

- Kudeaketaren gaineko lege-betekizunak (Araudiaren III. eranskinean jasota daudenak), eta nekazaritza eta ingurumen alorreko baldintza onak bete beharra, zuzeneko ordaintzak jaso ahal izateko (IV. eranskina).
- Ez betetzeak laguntzak murriztea, bai eta laguntzarik gabe geratzea dakar, arau-haus-tearen larritasunaren, hedaduraren, iraupenaren eta errepikapenaren arabera.



Ekoirolek bete behar dituzten betebeharrak hurrengo eremuetan daude jasota:

— **Nekazaritza eta ingurumenaren alorreko baldintza onen eremua: 20/2005 Dekretuaren I. eranskina.**

— **Ingurumenaren eremua: 20/2005 Dekretuaren II. eranskina.**

- 1. egintza. 79/409/EEE Zuzentaraua, hegazti basatiak babesteari buruzkoa.
- 2. egintza. 80/68/EEE Zuzentaraua, lurrazpiko urak babesteari buruzkoa.
- 3. egintza. 86/278/EEE Zuzentaraua, nekazaritzan araztegi lokatzak erabiltzean ingurumena, eta, batez ere, lurrak babesteari buruzkoa.
- 4. egintza. 91/676/EEE Zuzentaraua, nitratoen kutsaduraren aurrean urak babesteari buruzkoa.
- 5. egintza. 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak mantentzeko buruzkoa.


— **Osasun publiko, animalien osasun eta landareen osasunaren eremua: 20/2005 Dekretuaren II. eranskina.**

- 1. egintza. 92/102/EEE Zuzentaraua eta (EE) 911/2004, 1760/2000 eta 21/2004 Araudiak, animalien identifikazio eta erregistro alorreko xedapenei buruzkoak.
- 2. egintza. Kontseiluaren 91/414/EEE Zuzentaraua, 1991ko uztailaren 15koa, produktu fitosanitarioak merkaturatzeko buruzkoa.
- 3. egintza. Kontseiluaren 96/22/EE Zuzentaraua, 1996ko apirilaren 29koa; horren bidez, debekatu egiten da ganadua hazteko eragin hormonal eta tireostatikoa duten substantziak, eta substantzia beta agonistak erabiltzea.
- 4. egintza. 178/2002 (EE) Araudia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2001eko maiatzaren 22koa; horren bidez elikagaien legeriaren gaineko printzipio eta betekizun nagusiak finkatzen dira, Elikagaien Segurtasunerako Europako agintaritzaren sortzen da eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak finkatzen dira.
- 5. egintza. 999/2001 (EE) Araudia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2001eko maiatzaren 22koa; horren bidez, xedapenak ezartzen dira transmititu daitezkeen entzefalopatia espongiforme jakin batzuk prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko.

## Kontrol eremuak







- 6. egintza. 85/511/EEE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1985eko azaroaren 18koa, sukarrak aftosoaren aurka egiteko erkidego mailako neurriak ezartzen dituena.
- 7. egintza. 92/119/EEE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1992ko abenduaren 17koa; horren bidez, erkidego mailako neurri orokorrak ezartzen dira animalien gaixotasun jakin batzuen aurka egiteko eta neurri espezifikoak ezartzen dira txerrien besikulako gaixotasunari dagokienez.
- 8. egintza. 2000/75/EE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 2000ko azaroaren 20koa; horren bidez, xedapen espezifikoak onartzen dira, ardien katarro sukarraren aurka egiteko eta hori desagerrarazteko.
- 9. egintza. 852/2004 (EE) Araudia, elikagaien higieneari buruzkoa.
- 10. egintza. 853/2004 Araudia, animalia jatorria duten elikagaien higieneari dagokion arau espezifikoak ezartzen dituena.
- 11. egintza. 183/2005 (EE) Araudia, pentsuen higieneari dagokionez betekizunak ezartzen dituena.
- 12. egintza. 1991/629/EEE Zuzentaraua, zekorrek babesteko gutxienezko arauak buruzkoa.
- 13. egintza. 1991/630/EEE Zuzentaraua, zerriak babesteko gutxienezko arauak buruzkoa.
- 14. egintza. 1998/58/EEE Zuzentaraua, abeltzaintza-ustategietan abereak babesteari buruzkoa.

## **Arauk eta kontrolatu beharreko elementuak**

### **A. Lurraren higadura ekiditeko eska daitekeen araua; Lur-lantzea maldaren toki-ko baldintzetara egokitzea, Lurzoruaren gutxieneko estaldura eta Eusteko terrazak mantentzea.**

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 1) Belarki-laboretarako, lurra ez lantzea mailaren norabide berean, SIGPAC esparruaren batez besteko malda %12tik gorakoa denean.
- 2) Mahasti, olibadi eta azaldun fruituen laborantzan lurra ez lantzea SIGPAC esparruaren batez besteko malda %15etik gorakoa denean.
- 3) Neguko belarki-laboreak ereiten diren nekazaritzako partzeletan, ez da lurra landuko aurreko uzta bildu zenetik irailaren 1era bitartean.
- 4) Lehorreko zurezko labore-hondarren txertakak ez direla errotik ateratzen ezarritako zona horietan SIGPAC esparruaren malda % 15ekoa edo gehiagokoa denean.
- 5) Lugorriko lurretan, baztertuta uzten direnetan eta landu gabe utzitakoetan, lurra lantzeko sistema tradizionalak erabiltzen direla; alegia, gutxieneko lantzea edo landare-estalki egokia mantentzea.
- 6) Higadura-arrisku handiko aldeetan, zoruak eta habitat naturalak narriatu edo gal ez daitezen ezartzen diren murriztapenak, labore-txandaketako jarraibideak eta landare-estalki motak errespetatzen direla.
- 7) Eusteko terrazak egoera onean mantentzen direla.

### **B. Lurzoruko materia organikoa kontserbatzeko eska daitekeen araua..**


Kontrolatu beharreko elementuak:

- 8) Sasitzak ez direla erre.
- 9) Uzta (belarki-laborantzak) eta inausketa (zurezkoen laborantzak) hondarrak kendu direla, ezarritako araudiarekin bat etorrita.

## **Nekazaritza eta ingurumen alorreko baldintza onen eremua**

**Euskal Autonomia Erkidegoko  
20/2005 Dekretuaren  
I. eranskina**





**C. Lurraren trinkotzea ekiditeko eta horren egitura mantentzeko eska daitekeen araua.**

Kontrolatu beharreko elementuak:

10) Lurzoru urasetuetan ez dela ibilgailurik edo makinarik erabili justifikaziorik gabe.

**D. Nekazaritzako arloen gutxieneko mantentze-lanak bermatzeko eska daitekeen araua; Etengabeko bazka-larreak babestea, Landutako lurretan landaretza espontaneo inbaditzailea prebenitzea.**

Kontrolatu beharreko elementuak:

11) Etengabeko larreak ez direla erre edo luberritu, landaretza lehengoratzeko ez bada. Lehengoratzeko erre egiten bada, aldeztatik agintaritza eskudunaren baimena dagoela.

12) Etengabeko larreen arloetan gutxieneko ganadu kopuru egokia dagoela. Hala ere, etengabeko larreen arloetan eta ez badago ganadu kopuru egokirik, beharrezko lanak egiten direla, zuhaixken inbasioa ekiditeko eta larreak ez alferrik galtzeko.

13) Landutako lurretan ez dadila nahi ez den landaretza espontaneoko espezierik hazi.

14) Olibondoak ez direla kendu, kultura eta barietateei dagokienez birmoldaketa inguruak ez badira.

15) Olibondoak egoera begetatibo onean daudela.

**E. Habitaten narriatzea saihesteko eska daitekeen araua.**


Kontrolatu beharreko elementuak:

16) Lurraren ezaugarri topografikoak eta egitura-elementuak mantentzen direla, agintaritza eskudunak horiek aldatzeko baimena eman ez badu behintzat.

17) Gehiegi ustiatutako akuifero-zonetan, emariak ez direla baimenik gabe erabiltzen.

18) Administrazioaren ur-emakiden titularrek ureztatze-lanetan erabiltzen diren urak neurtzeko sistemak instalatuta dituztela eta horiek mantentze-egoera onean daudela.

- 19) Urez betetako edo elurrez estalitako lurretan eta ur-lasterretan edo ur geratuetan ez direla landare-osasunerako produktuak, ongarriak, araztegiko lohiak, konpostak, mindak edo simaurrak erabili.
- 20) Zereal-soroak ebaki ondoren faunari kalitatezko habitata eta aterpea eskaintze aldera, mozketaren altuera, ahal denetan, gutxienez 10-15 cm-koa izango da.
- 21) Horretarako, lehendabizi partzelaren kanpo-perimetroko uzta biltzen dela eta, ondoren, erditik hasi eta alboetarantz joanez, zeharka, jarraitzen dela egiaztatuko da.
- 22) Egiaztatu egingo da ez direla bertan utzi, ezta kontrolik gabe isuri ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenerako bitartekoak erabiltzetik sortutako hondakin-materialak, besteak beste, plastikoak, ontziak, bilgarriak, makina-hondakinak, olioak, lubrifikatzaileak, landare- eta abere-osasunarentzako produktuen hondakinak eta albaitaritzako produktuen hondakinak.
- 23) Egiaztatu egingo da etengabeko edo erdi-etengabeko estabulazioko ustiategietan, ustiategiak simaurra biltegitzeko tanga estankoak dituen, behar besteko kapazitateaz, bai eta horiek erabiltzen dituen, eta hola ez bada, ustiategitik simaurra edota minda kentzeko sistemaren justifikaziorik duen.





## **Egintzak, betekizunak eta kontrolatu beharreko elementuak**

### **I. EGINTZA. 79/409/EEE Zuzentaraua, hegazti basatiak babesteari buruzkoa.**

1. betekizuna: (4. artikulua) Bai hegazti migratzaileen bai arriskuan eta galzorian dauden hegaztien espezieak aurki daitezkeen habitat naturalen espazioa zaintzea.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 1) Ez direla lurrraren egiturazko elementu naturalak kaltetu (aldeak, ezpondak, e.a.), bereziki ibaien eta abelbideen sarearekin erlazionatutakoak.
- 2) Ez direla produktu ez biodegradagarriak erabiltzen.

2. betekizuna: (5. artikulua) Hegazti-espezie guztiak babestea.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 3) Ez dela basa-hegaztirik hil, zauritu edo harrapatu. Salbuespen izango dira ehiza-arautegian aipatzen diren jardunak eta espezieak.
- 4) Ez direla hegaztien habiak edo arrautzak suntsitu edo hartu.
- 5) Basa-hegaztiak ez direla nahita aztoratzen ugaltze- eta hazkuntza-aldian zehar.
- 6) Ez dela hartu ehizatu eta atzeman ezin daitekeen hegaztirik.

3. betekizuna: (7 eta 8. artikulua). Hegaztien ehiza arautzea.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 7) Debekualdian ez dela ehizarik egiten.
- 8) Hegaztiak harrapatu edo hiltzeko ez direla suntsipen handiko metodoak edo metodo bereizleak erabiltzen: tranpak, gailu elektrikoak, sareak, beita pozoidunak, ibilgailu motordunak, eta abar.

### **2. EGINTZA. 80/68/EEE Zuzentaraua, lurrazpiko urak kutsaduraren aurrean babesteari buruzkoa.**

1. betekizuna: (4 eta 5. artikulua). Gai arriskutsu jakin batzuk lurpeko uretan sartzea ekiditea.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 9) Ez dela landare-osasunarentzako produktuen hondakinik isuri.

## **Ingurumen eremua**

**Euskal Autonomia Erkidegoko  
20/2005 Dekretuaren  
II. eranskina**





### **3. EGINTZA. 86/278/EEE Zuzentaraua, nekazaritzan araztegiko lokatzak erabiltzean ingurumena, eta, batez ere, lurrak babesteari buruzkoa.**

I. betekizuna: (3. artikulua) Nekazaritzan lokatzak erabiltzeari buruzko arautegi nazionala betetzen dela egiaztatzea.

Kontrolatu beharreko elementuak:

10) Lokatzak erabiltzerakoan, badagoela araztegiak horien inguruan egiten duen dokumentazioa.

### **4. EGINTZA. 91/676/EEE Zuzentaraua, nitratoen kutsaduraren aurrean urak babesteari buruzkoa.**

I. betekizuna: (5. artikulua). Arriskuan dauden eremu gisa izendatutako lekuetan dauden abeltzaintzako eta nekazaritzako ustiategietan, jarduketa-programetan ezarritako neurriak betetzen direla egiaztatzea.

Kontrolatu beharreko elementuak:

11) Ustiategiak, lantzen dituen laboreetako bakoitzerako behar bezala betetako ustiapen-koadernoak baduela, honakoen berri emateko: noiz landatu zen eta noiz bildu behar den, landutako azalera, ongarriak zein garaitan aplikatzen diren, ongarri-mota, eta aplikatutako ongarri-kantitatea (kg/ha).

12) Ustiategian simaurrak eta silokoak biltegitatzeko edukiera nahikoa duten biltegi estankoak badaudela.

13) Ongarri-mota jakin batzuk aplikatzea debekatzen den aldiak errespetatzen direla.

14) Hektareako erabil daitezkeen gehieneko simaur-kantitateak errespetatzen direla.

15) Ez dela ongarririk aplikatzen ur-ibilguetatik gertu dagoen eta gutxienez 3 metroko zabalera duen zerrendan.

### **5. EGINTZA. 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta basa-animalia eta landareak zaintzeari buruzkoa (basa-animalia eta landareen espezieak II. eranskinean zerrendatu dira).**

I. betekizuna: (13. artikulua). Landare-espezie babestuak errespetatzen direla egiaztatzea.

**Kontrolatu beharreko elementuak:**

16) Espezie babestuen artean dauden landareak hartu, moztu, errotik atera edo suntsitzeko debekua errespetatzen dela.

17) Ez dutela landare-espezie babesturik, eta ez dituztela garraiatzen edo salerosten.

2. betekizuna: (15. artikulua). Basa-animalia espezieak errespetatzen direla egiaztatzea.


**Kontrolatu beharreko elementuak**

18) Animalioek harrapatu edo hiltzeko ez direla suntsipen handiko metodoak edo metodo bereizleak erabiltzen: tranpak, gailu elektrikoak, sareak, beita pozoidunak, ibilgailu motordunak, eta abar.

**3. betekizuna: (22. artikulua). Basa-animalia eta -landare espezieak errespetatzen direla egiaztatzea.**

**Kontrolatu beharreko elementuak:**

19) Ez direla bertakoak ez diren espezie, azpi-espezie edo arrazak sartzen.







## **Egintzak, betekizunak eta kontrolatu beharreko elementuak**

### **I. EGINTZA. 92/102/EEE Zuzentaraua eta (EE) 911/2004, 1760/2000 eta 21/2004 Araudiak, animalien identifikazio eta erregistro alorreko xedapenei buruzkoak.**

1. betekizuna: (92/102/EEE Zuzentarauaren 4. artikulua eta 21/2004 (EE) Araudiaren 5. artikulua) Erregistro-liburua behar bezala eguneratzea eta frogagiriak gordetzea.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 1) eta 4) Administrazioak txerri-aziendako edo ardi- eta ahuntz-aziendako ustiategiei buruz duen erregistroan jasotako datuak, datutegitik hartutakoak, bat datozela ustiategian dauden animaliekin.
- 2) eta 6) Ekoizleak oraindik ere gordetzen duela inoiz izan, garraiatu, salerosi edo hil dituen animalien jatorri, identifikazio eta xedeari buruzko dokumentazioa.

2. betekizuna: (92/102/EEE Zuzentarauaren 5. artikulua, 21/2004 (EE) Araudiaren 4. artikulua eta 947/2005 EDren 4. artikulua). Animaliak identifikatzea.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 3) eta 5) Txerri-aziendako edo ardi- eta ahuntz-aziendako ustiategietan, abere guztiak arautegian ezartzen denari jarraiki identifikatuta daudela.
3. betekizuna: (1760/2000 (EE) Araudiaren 4. artikulua). Behi-espezieko animalia bakoitza banaka identifikatzea, banan-banan markatuta.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 7) Ustiategian dauden behiak behar bezala identifikatuta daudela, banan-banan, eta identifikazio-zenbakiak bat datozela identifikazio eta erregistroko datutegian daudenekin.
4. betekizuna: (1760/2000 (EE) Araudiaren 7. artikulua eta 911/2004 (EE) Araudiaren 8. artikulua). Behi-aziendako ustiategiak erregistroa izatea eta hori behar bezala betetzea, eredu normalizatuei jarraiki.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 8) Administrazioak ustiategiei buruz duen erregistroan jasotako datuak, identifikazio eta erregistroko datutegitik hartutakoak, bat datozela ustiategian dauden animaliekin.

## **Osasun publiko, animalia osasun eta landareen osasun eremua**

**Euskal Autonomia Erkidegoko  
20/2005 Dekretuaren  
II. eranskina**





9) ) Ekoizleak gordetzen duela inoiz jabetzan izan, eduki, garraiatu, salerosi edo hil dituen animalien jatorri, identifikazio eta, hala badagokio, xedeari buruzko dokumentazio guztia.

10) Ekoizleak epearen barruan jakinarazi diola Identifikazio eta Erregistro datutegiarri abereen jaiotzak, mugimenduak eta heriotzak.

**5. betekizuna: (1760/2000 (EE) Araudiaren 6. artikulua eta 911/2004 (EE) Araudiaren 6. artikulua). Behi-aziendako abelburu bakoitzak eredu normalizatua-  
ren arabera egindako Behien Identifikazio Agiria (BIA) izatea.**

**Kontrolatu beharreko elementuak:**

11) Ustiatetikoko abelburu bakoitzak bere identifikazio-agiria baduela eta BIA horietan jasotako datuak bat datozela ustiategian dauden animaliekin eta identifikazio eta erregistroko datutegian erregistratutakoekin.

**2. EGINTZA: 91/414/EEE Zuzentaraua, produktu fitosanitarioak merkaturatzeari buruzkoa, azaroaren 4ko 2163/1994 Errege Dekretuak aldatua; dekretu horren arabera produktu fitosanitarioak merkaturatzeko eta erabiltzeko baimen sistema harmonizatu erkidea ezartzen da.**

**1. betekizuna: (3. artikulua)**

**Kontrolatu beharreko elementuak:**

12) Soilik baimendutako produktu fitosanitarioak erabiltzen direla (Produktu Fitosanitarioen Erregistroan inskribatuta daudenak, 2163/1994 Errege Dekretuaren arabera).

13) Produktu fitosanitarioak behar bezala, hau da, etiketako jarraibideen arabera erabiltzen direla.

**3. EGINTZA. 96/22/EE Zuzentaraua, ganadua hazteko eragin hormonal eta tireostatikoa duten substantzia batzuk eta substantzia beta agonistak erabiltzea debekatzen duena.**

I. betekizuna: (96/22/EE Zuzentaruaren 3, 4, 5 eta 7 artikulua; 2178/2004 EDren 2. artikulua).

**Kontrolatu beharreko elementuak:**

- 14) Ustiategian ez dagoela honako substantziarik, justifikatuta ez badago: Tireostatikoak, estilbenoak, estilbenoen eratorriak, horien gatzak eta esterrak, 17-Beta-Estradiol edo ester erako eratorriak, eta Beta-agonistak.
- 15) Substantzia horiek ez zaizkiela ustiategiko animaliei eman, tratamendu zootekniko edo terapeutikoetarako jasotako salbuespenetan izan ezik.
- 16) Baimendu gabeko substantzia edo produktuak eman zaizkion animaliarik ez dela merkaturatu, edo, baimendutako produktuak eman izanez gero, produktu horietarako ezarritako itxaronaldia errespetatu dela.

**4. EGINTZA. 178/2002 (EE) Araudia, elikagaien legeriari buruzkoa.**

I. betekizuna: 14. artikulua.


**Kontrolatu beharreko elementuak:**

- 17) Ustiategian, elikagai gisa merkaturatuko diren produktuak seguruak direla, eta ustelduta, alferrik galduta, galduta edo materia arraro batek edo beste zerbaiten kutsatuta ez daudela.

2. betekizuna: 15. artikulua.

**Kontrolatu beharreko elementuak:**

- 18) Elikagaiak ekoiztera zuzendutako abere-ustiategietan ez zaiela animaliei seguru ez den pentsurik ematen eta existitu ere ez direla egiten (pentsuak baimendutako establezimenduetan erosi behar dira eta etiketako jarraibideak errespetatu behar dira).





### 3. betekizuna: 17. artikulua (1), elikagaien eta pentsuen higienari buruzkoa (852/2004 eta 183/2005 Araudiek garatuta).

#### Kontrolatu beharreko elementuak:


- 19) Animalia berriak eskuratzeko arduraz jokatu dela gizakiei elikagaien bitartez transmititu dakizkieken gaixotasun kutsakorrek ager eta zabal ez daitezzen, eta gaixotasun horiek egon daitezkeen susmoak badaude, agintaritza eskudunari jakinarazi zaiola.
- 20) Hondakin eta substantzia arriskutsuak berezita eta era seguru batean biltegitzen eta erabiltzen direla, kutsadura ekiditeko.
- 21) Pentsuetarako aditiboak, albaitaritzako botikak eta biozidak behar bezala erabiltzen direla (baimendutako produktuak erabili behar dira, eta etiketak eta errezetak errespetatu).
- 22) Erregistratutako edota baimendutako establezimenduetan eskuratutako pentsuak baino ez direla erabiltzen, 183/2005 (EE) Araudiaren arabera.
- 23) Pentsuak eta animalien elikaduran debekatuta dauden produktuak (kimikoak edo bestelakoak) berezita biltegitzen direla.
- 24) Medikatutako pentsuak eta medikatu gabekoak gurutzatutako kutsadura arriskua ekiditeko moduan biltegitzen eta erabiltzen direla, edo animalien elikagaiak ez direla animalia horiei zuzenduta ez dauden pentsuekin nahasten.
- 25) Honako hauen erregistroak daudela:
  - Pentsuen eta animaliak elikatzeko erabiltzen diren beste produktu batzuen izaera, kopurua eta jatorria.
  - Ematen diren pentsuen kopurua eta xedea.
  - Animaliei zuzendutako albaitaritza medikamenduak edo tratamenduak, noiz eman diren eta kentze aldia.
  - Biozida eta fitosanitarioen erabilera.
  - Landare eta animaliei egin beharreko analisi guztien eta gizakien osasunerako garrantzia izan dezaketen beste lagin batzuen emaitzak.

- Animalien edo animalia jatorria duten produktuen gain egindako kontrolen bitartez lortutako edozein txosten garrantzitsu.
- Genetikoki eraldatutako hazien erabilera, dagokionean.

**4. betekizuna: 17. artikulua (1), animalia jatorria duten elikagaien higienerari buruzkoa (853/2004 Araudiak garatuta).**

**Kontrolatu beharreko elementuak:**

- 26) Ustiategiak osasuntsu gisa edo ofizialki osasuntsu kalifikatuta daudela, ardi, ahuntz eta behi bruzelosiaren aurrean, bai eta ofizialki osasuntsu behin tuberkulosiaren aurrean eta behiekin dauden ahuntzen aurrean. Behi, ardi eta ahuntz ez diren beste eme batzuk badaude ustiategian, eta gaixotasun horiek izan baditzakete, estatu mailako erradikazio programen kontrolpean egon beharko dute.
- 27) Kalifikatuta ez dauden ustiategiak estatu mailako erradikazio programen kontrolpean daudela, emaitza negatiboa ematen dutela diagnostiko proba ofizialen aurrean eta esnea termikoki tratatzen dutela. Ardi eta ahuntzei dagokienez, esnari tratamendu termikoa eman behar zaio, edo, gaztak egiteko izan behar da, 2 hilabete baino gehiagoko ontze-aldia utzita.
- 28) Esnea termikoki tratatu dela, behi, ardi edo ahuntz ez diren emeen esnea bada, eta gaixotasun horiek izateko arriskua badu (nahiz eta proba ofizialetan negatiboa eman), baina abere taldean gaixotasunaren zantzuak antzeman badira.
- 29) Animalia positiboen esnea giza kontsumorako erabiltzen den.
- 30) Aurreko puntuetan aipatutako gaixotasunak dituzten animaliak behar bezala isolatuta daudela, gainerako animalien esnean eragin negatiborik izan ez dadin.
- 31) Esnea jezteko ekipamenduak eta esnea biltegitratzeko, manipulatzeko edo hozteko lokalak esnearen kutsadura arriskua ekiditeko moduan kokatuta edo erakita daudela.
- 32) Esnea biltegitratzeko lokalak basapiztietatik babestuta daudela, animaliak ukuiluraturuta dauden lokaletatik argi eta garbi bereizita daudela eta hozte ekipamendua egokia dutela, tenperaturari dagokionez agintzen diren betekizunak betetzeko.





- 33) Esnea jezterakoan eta biltzerakoan esnearekin kontaktuan dauden ekipamenduak (tresnak, ontziak, tangak, eta abar) garbitzeko eta desinfektatzeko errazak direla, eta egoera onean daudela. Erabili eta gero, tresnok garbitu egin behar dira, eta, behar izanez gero, desinfektatu. Materialak lisoak, garbitzeko moduak eta ez-toxikoak izan behar dira.
- 34) Jezten diren animaliak osasun eta higiene egoera onean daudela. Bereziki:
- Jezten hasi baino lehen, erroak, errapea eta ingurua garbi dagoela, eta zauririk zein inflamaziorik gabe.
  - Albaitariak jarritako tratamenduan dauden animaliak eta esnari hondakinak transmititu ahal dizkietenak, argi eta garbi identifikatuta daudela.
  - Albaitariak jarritako tratamenduan dauden animaliak eta botikaren kentze aldian dauden bitartean esnari hondakinak transmititu ahal dizkietenak, berezita jezten direla. Animalia horien esnea gainerako animalien esnetik berezita dagoela, esneok inola ere nahastu gabe, eta ez dela gizakien kontsumorako erabiltzen.
- 35) Jetzi eta segituan esnea toki garbi batean uzten dela, hain zuzen ere, kutsadura ekiditeko diseinatutako eta ekipatutako toki batean, eta esnea berehala hozten dela, 8°C-ko edo gutxiagoko temperatura batean, egunero biltzen bada eta 6°C-ko edo gutxiagoko temperatura esnea ez bada egunero biltzen. (Esnea hurrengo 2 orduetan prozesatuko bada edo arrazoi teknikoengatik esnekiak egiteko temperatura altuagoa eman behar bazaio, ez da temperaturaren betekizun hori bete behar).
- 36) Ekoizlearen instalazioetan arrautzak garbi, lehor eta usai arrarorik gabe daudela, eta kolpeetatik eta eguzkiaren erradiazio zuzenetik babestuta daudela.
- 37) Ustiategiari pentsua, elikagaiak ekoiztera zuzendutako animalia bat, elikagai bat, edo pentsu bati edo elikagai bati gehitu beharreko substantzia bat eskuratu dion operadorea identifika daitekeela.
- 38) Ustiategiak bere produktuak hornitu dizkion operadorea identifika daitekeela.

**5. EGINTZA. 999/2001 (EE) Araudia, transmititu daitezkeen Entzefalopatia Espongiforme batzuk prebenitu, kontrolatu eta desagerrarazteari buruzkoa.**

**1. betekizuna: 7. artikulua. Debekuak animalien elikagaiei dagokienez.**

**Kontrolatu beharreko elementuak:**

- 39) Hausnarkarien ustiategietan ez dela lehorreko animalietatik ez eta arrainetatik etorritako proteinarik erabiltzen, salbuespen izanik Araudiaren IV. eranskinean jasotakoa.
- 40) Hausnarkariak barik elikagaien ekoizle diren beste animalia batzuen ustiategietan ez dela lehorreko animalietatik etorritako proteinarik erabiltzen, salbuespen izanik Araudiaren IV. eranskinean jasotakoa.
- 41) Ustiategi mistoen kasuan (hausnarkarien eta ez hausnarkarien espezieak biak daudenean) eta ez hausnarkariak elikatzeko animalia proteina eraldatuak dituzten pentsuak erabiltzen badira, banaketa fisikoa dagoela animalia batzuentzako eta besteentzako pentsuak biltegitratzerakoan, eta behar den baimena badela.

**2. betekizuna: I I . artikulua. Jakinarazpena.**

**Kontrolatu beharreko elementuak:**

- 42) Ez dagoela administrazio-espediterik TEE jakinarazpena ez delako bete.

**3. betekizuna: I2. artikulua: Animalia susmagarrien gaineko neurria.**


**Kontrolatu beharreko elementuak:**

- 43) Abeltzainak behar den dokumentazio guztia duela, mugimenduak eta Agintaritzaren Eskudunak emango duen ebazpena betetzen duela egiaztatzeko, Agintaritzaren horrek ustiategian TEE bat dagoen susmoa duenean.

**4. betekizuna: I3. artikulua: TEE dagoela egiaztatu eta gero hartu beharreko neurriak.**

**Kontrolatu beharreko elementuak:**

- 44) Abeltzainak behar den dokumentazio guztia duela, mugimenduak eta Agintaritzaren Eskudunak emango duen ebazpena betetzen duela egiaztatzeko, Agintaritzaren horrek ustiategian TEE bat dagoen egiaztatzen duenean.







5. betekizuna: 15. artikulua: Animalia biziak, esperma, obuluak eta enbrioiak merkaturatzea.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 45) Abeltzainak behar diren osasun ziurtagiriak dituela, (999/2001) Araudiaren merkaturatze eta inportazioari buruzko VIII. eta IX. eranskinetan agindutakoa betetzen duela egiaztatzeko, hala badagokio.
- 46) Abeltzainak ez dituela animalia susmagarriak zirkulazioan jartzen, Agintaritza Eskudunak susmo hori desagerrarazten ez duen bitartean.

**6. EGINTZA. 85/51 I/EEE Zuzentaraua, sukar aftosoaren aurka egiteko erkidego mailako neurriak ezartzen dituen.**

I. betekizuna: 3. artikulua: Jakinarazpena.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 47) Ez dagoela administrazio-espediterik sukar aftosoaren jakinarazpena ez delako bete.
- 48) Sukar aftosoaz kutsatutako animaliak edo kutsatuta egon daitezkeen animaliak beste animalia batzuk dauden tokietatik aldentuta daudela, animalia horiek sukar aftosoaren birusarekin kutsatzeko arriskua badute.

**7. EGINTZA. 92/119/EEE Zuzentaraua, animalien gaixotasun jakin batzuen aurka egiteari eta txerrien besikulako gaixotasunari dagokienez neurri espezifikoak ezartzeari buruzkoa.**

I. betekizuna: 3. artikulua: Jakinarazpena.

Kontrolatu beharreko elementuak:

- 49) Ez dagoela administrazio-espediterik 650/1994 Dekretuaren I. eranskinen aipatutako gaixotasunen baten jakinarazpena ez delako bete.

**8. EGINTZA. 2000/75/EE Zuzentaraua, ardien katarro sukarraren aurka egiteko eta hori desagerrarazteko neurriei buruzkoa.**

I. betekizuna: 5. artikulua: Nahitaezko jakinarazpena.

Kontrolatu beharreko elementuak:

50) Ez dagoela administrazio-espediterik ardien katarro sukarraren edo mihi urdin izeneko gaixotasunaren jakinarazpena ez delako bete.

**A partir del 1 de enero de 2007, entran en vigor los siguientes Actos y Normas, en relación con el bienestar de los animales:**

**9. egintza. Kontseiluaren 1991/629/EEE Zuzentaraua, 1991ko azaroaren 19koa, zekorrak babesteko gutxienezko araei buruzkoa (3. eta 4. artikulua).**

I. betekizuna: behien ustiategi guztiek, 3. eta 4. artikuluan zekorrak babesteko ezarritako xehetasunak bete beharko dituzte honakook direla eta:

- eraikitako instalazioak erabiltzeko aldia,
- zekorrentzako ukuiluak eraikitzeko ezaugarriak,
- zekorrek izan behar dituzten gune libreak,
- zekorrak banakako guneeetan itxita egon daitezkeen denbora.

**10. egintza.- Kontseiluaren 1991/630/EEE Arteztaraua, zerriak babesteko gutxienezko araei buruzkoa. 3. eta 4. artikulua, Kontseiluaren urriaren 23ko 2001/88/EE Arteztarauak aldatuta.**

I. betekizuna: zerrien ustiategi guztiek, 3. eta 4. artikuluan ezarritako xehetasunak bete beharko dituzte honakook direla eta:

- iraina kendutako edo taldean produkziorako hazitako zerri bakoitzak libre izan behar duen lur-azalera,
- estali ondoren txerrama edo txerri-eme gazte bakoitzak guztira libre izan behar duen lur-azalera,
- lurren estalkien ezaugarriak,
- txerramak eta txerri-eme gazteak lotzeko debekua,
- txerramak eta txerri-eme gazteen gelen neurriak,
- txerramak eta txerri-eme gazteen gelen neurriak.



**II. egintza.- Kontseiluaren 1998/58/EE Zuzentaraua, 1998 uztailaren 20koa, abeltzaintza-ustiategietan abereak babesteari buruzkoa.**

I. betekizuna: abeltziantza-ustiategi guztiek, 4. artikuluan ezarritako xehetasunak bete beharko dituzte honakook direla eta:

— abereak hazteko edo gordetzeko baldintzak, espeziea, garapen-maila, egokitzapena, eta, behar fisiologiko eta etologikoak kontuan izanik.







Ale-kopurua: 20.000 ale. © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila. Argitaraldia: I.a, 2006ko abendua. Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz. Argazkiak: Mikel Arrazola. Lege-gordailua: BI-3340-06.

